# Bestelako Xedapenak

## HERRIZAINGO SAILA

**1730**

AGINDUA, 2010eko martxoaren 3koa, Herrizaingoko sailburuarena, udalei ematen zaizkien dirulaguntzak arautu eta laguntza horiek eskatzeko deialdia egiten duena, terrorismoaren biktimentzat mingarriak edo iraingarriak izan daitezkeen edota terrorismoa goraipatzen duten pintadak ezabatzeko eta pankartak, argazkiak edo kartelak kentzeko.

Terrorismoaren biktimek duintasuna izateko duten eskubidea da aginte publikoek babestu beharreko oinarri morala. Begirunea izateak neurriak hartzea esan nahi du, bere izen ona zikintzen edo horiek umiliatzen dituzten eta terrorismoa goraipatzen duten ekintza publikoak gauzatzea prebenitzeko eta saihesteko.

Euskal Autonomia Erkidegoan terrorismoaren biktimentzat iraingarriak diren ekintzak gauzatzeko biderik nagusi eta ohikoena toki publikoetan pintadak egitea eta kartelak, argazkiak edo pankartak jartzea da.

Gai horri dagokionez, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko den ekainaren 19ko 4/2008 Legearen 4. artikuluak aginte publikoei eskatzen die biktimen duintasunaren aurkako pintaden eta kartelen, argazkien edo pankarten kontra jarduteko.

Jarduera horien kontra eta, oro har, indarkeria goraipatzen edo pertsonen duintasuna gutxiesten duten horien kontra, udal asko, bere eskumenen eremuan, berezko zerbitzuen bidez lanean ari dira aspaldi.

Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eginkizun horiek egiten jarraitzeko eta horiek areagotzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak laguntza ekonomikoa sustatu du elementu horiek garbitzeko eta kentzeko lanak finantzatzeko.

Adierazitakoari jarraituz, eta indarrean dagoen lege-antolamenduak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

***1. artikulua.***– Xedea.

Agindu honen xedea da arauak ezartzea eta 2010eko deialdia egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei diru-laguntzak emateko, pintaden garbi-

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

**1730**

ORDEN de 3 de marzo de 2010, del Consejero de Interior, por la que se regulan y convocan subvenciones a los Ayuntamientos para la eliminación de pintadas y retirada de pancartas, fotos o carteles ofensivos o humillantes para las víctimas del terrorismo o de exaltación del terrorismo.

El derecho a la dignidad de las víctimas del terrorismo es un presupuesto moral que los poderes públicos están obligados a preservar. Su respeto implica la adopción de medidas para prevenir y evitar la realización de actos efectuados en público que entrañen descrédito o humillación de las víctimas y exaltación del terrorismo.

Una de las principales y más frecuentes vías a través de las cuales se producen en la Comunidad Autónoma de Euskadi actuaciones ofensivas para las víctimas del terrorismo es la realización de pintadas y la colocación de carteles, fotos o pancartas en lugares públicos.

El artículo 4 de la Ley 4/2008, de 19 de junio, de Reconocimiento y Reparación a las Víctimas del Terrorismo, en relación a este asunto, insta a los poderes públicos vascos a actuar contra las pintadas y carteles, fotos o pancartas que atenten contra la dignidad de las víctimas.

Contra este tipo de actuaciones, y contra aquéllas dirigidas a la exaltación de la violencia o menosprecio de la dignidad de las personas en general, son numerosos los Ayuntamientos que, en el ámbito de sus competencias, vienen actuando mediante sus propios servicios municipales desde tiempo atrás.

Por tanto, en orden a facilitar la continuación de estas tareas por parte de los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma de Euskadi e intensificar las mismas, el Gobierno Vasco impulsa una línea de ayuda económica para la financiación de las labores de limpieza y retirada de los citados elementos.

Por todo lo dicho, y en virtud de las facultades que me confiere el ordenamiento jurídico vigente,

RESUELVO:

***Artículo 1.***– Objeto.

Es objeto de la presente Orden regular y convocar para el año 2010 la concesión de subvenciones a los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma de

ketak eta pankartak, argazkiak edo kartelak kentzeak sortutako gastuak ordaintzera bideratuko direnak, baldin eta terrorismoaren biktimen eta haien familiakoen izen ona galtzea, mespretxua, iraina edo umilazioa badakarte edota terrorismoa goresten badute edo terroristei omenaldia egiten badiete. Diruz lagunduko diren gastuak 2010. urtean sortuak izan beharko dira.

Agindu honen xedea betetzeko, zazpiehun eta berrogeita hamar mila (750.000) euroko zenbateko orokorra bideratuko da gehienez, dagokion aurrekontuko partidaren kontura, eta kantitate hori ezin izango da izan diru-laguntzen batura baino handiagoa.

***2. artikulua.***– Administrazio onuradunak.

1.– Agindu honek arautzen diru-laguntzen entitate onuradunak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako udalak.

2.– Ezin izango dute deialdi honetan parte hartu diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galdu duten administrazio-zehapen edo zigor penalik jaso duten entitateek, edo horretarako ezgaitu dezakeen legezko inolako debekuan sarturik badaude.

***3. artikulua.***– Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak.

1.– Diruz lagunduko dira pintadak, pankartak, argazkiak edo kartelak kentzeko jarduera hauek:

– Pertsona bat edo pertsona-talde bat iraintzen, mehatxatzen edo mehatxuz identifikatzen dituztenak.

– Legez kanpoko erakunde edo erakunde terrorista bat laguntzen edo goraipatzen dutenak edo horrek sinatutakoak.

– Jarduera terroristekin lotutako pertsonak laguntzen edo goratzen dituztenak.

2.– Jarduera horiek baliabide hauen bidez egin daitezke:

1) Udaleko gastu zuzenak, pintadak garbitzeko edo pankartak, argazkiak edo kartelak kentzeko.

2) Lehen adierazitako lanetan berezitutako enpresak edo zerbitzuak kontratatzea.

***4. artikulua.***– Laguntzak kudeatuko dituen organoa.

Udaltzainak Koordinatzeko Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

***5. artikulua.***– Eskabideak aurkeztea.

1.– Agindu honetan aipatzen diren diru-laguntzak eskuratu nahi dituzten udalek arrazoitutako idazkia

Euskadi destinadas a sufragar los gastos derivados de la limpieza de pintadas y de la retirada de pancartas, fotos o carteles que entrañen bien descrédito, menosprecio, ofensa o humillación de las víctimas del terrorismo o sus familiares; bien exaltación del terrorismo u homenaje a los terroristas. Los gastos subvencionables deben haberse producido en el año 2010.

A los efectos del cumplimiento del objeto de esta Orden se destinará un importe global máximo de setecientos cincuenta mil (750.000) euros, con cargo a la partida presupuestaria correspondiente, no pudiendo exceder el montante conjunto de las subvenciones la citada cantidad.

***Artículo 2.***– Administraciones beneficiarias.

1.– Podrán ser entidades beneficiarias de las subvenciones reguladas por esta Orden los Ayuntamientos de los municipios de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.– No podrán concurrir a esta convocatoria las entidades que se encuentren sancionadas administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas, o se hallen incursas en prohibición legal alguna que les inhabilite para ello.

***Artículo 3***.– Actuaciones subvencionables.

1.– Serán objeto de subvención las actuaciones de eliminación de pintadas, pancartas, fotos o carteles siguientes:

– Las que insulten, amenacen o identifiquen de forma amenazante a alguna persona o grupo de personas.

– Las que apoyen, enaltezcan a, o sean firmadas por, alguna organización ilegalizada o terrorista.

– Las que apoyen o ensalcen a personas relacionadas con actividades terroristas.

2.– Dichas actuaciones se podrán realizar por los siguientes medios:

1) Gastos directos de los Ayuntamientos para llevar a cabo la limpieza de pintadas o la retirada de pancartas, fotos o carteles.

2) Contratación de empresas o servicios especializados en las tareas anteriormente indicadas.

***Artículo 4.***– Órgano de gestión de las ayudas.

Corresponderá a la Dirección de Coordinación de Policías Locales la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente convocatoria.

***Artículo 5.***– Presentación de solicitudes.

1.– Los Ayuntamientos interesados en la obtención de las subvenciones a que se refiere la presente

–alkateak izenpetuta– aurkeztu beharko diote Udaltzainak Koordinatzeko zuzendariari, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Erregistro Nagusian (Vitoria-Gasteizko Donostia kalea, 1) edo azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan onartutako edozein egoitzatan.

2.– Diru-laguntzen eskabideak Agindu hau argitaratzen den hurrengo egunetik onartuko dira 2010eko azaroaren 15a arte, hori ere barne.

3.– Agindu honen arabera, diruz laguntzen diren jardueren eskaera bakarra edo multzokatua aurkez daitezke.

4.– Eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

– Udaleko idazkariak luzatutako egiaztagiria, diruz lagunduko diren esku-hartzeen zerrenda jasoko duena.

– Ezabatu diren pintada, pankarta, argazki edo kartelen agiri grafikoak, memoria batek lagunduta, pintada, pankarta, argazki edo kartel horien edukia eta diruz lagunduko diren jardueren barruan sartzeko zergatia azalduko dituena.

– Pintada, pankarta, argazki edo kartelak kentzea egiaztatuko duen dokumentazio grafikoa.

– Elementu horiek kentzeko zuzeneko gastuen fakturak.

– Elementu horiek kentzeko lanak egiteko kontratatuko den enpresak egindako fakturak.

– Udaleko idazkariak emandako ziurtagiria, udalerriko herritarren kopurua jasoko duena biztanleen Udal Erroldaren arabera.

***6. artikulua.***– Aurkeztutako eskabideko akatsak zuzentzea.

Udaltzainak Koordinatzeko Zuzendaritzak akats edo hutsen bat sumatzen badu aurkeztutako eskabidean, eskabide-egileari jakinaraziko dio, eta 10 eguneko epea emango dio akatsa zuzentzeko. Epe hori agortutakoan zuzendu ez badu, eskatzaileak berak eskabidea atzera bota duela ulertuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikuluaren arabera.

***7. artikulua.***– Diru-laguntzak emateko prozedura.

1.– Epe barruan eskabideak aurkezteko interesa duten udal guztiek, baldin eta Agindu honetan eskatutakoa betetzen dutela egiaztatzen badute, dagozkien diru laguntzak eskuratuko dituzte 8. artikuluaren ara-

Orden deberán presentar en el Registro General del Departamento de Interior del Gobierno Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián, 1 de Vitoria-Gasteiz, o en cualquiera de las dependencias a que se refiere el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, escrito razonado firmado por el Alcalde de la Corporación y dirigido al Director de Cordinación de Policías Locales.

2.– Se admitirán solicitudes de subvenciones desde el día siguiente al de la publicación de la presente Orden hasta el 15 de noviembre de 2010 inclusive.

3.– Se podrá presentar una solicitud individual o agrupada de varias de las actuaciones subvencionables de acuerdo con la presente Orden.

4.– A dicha solicitud se acompañara la siguiente documentación:

– Certificado expedido por el Secretario del Ayuntamiento en el que conste la relación de las intervenciones subvencionables realizadas.

– Documentación gráfica de las pintadas, pancartas, fotos o carteles cuya eliminación se haya realizado, acompañada de una memoria en la que se explique el contenido de dichas pintadas, pancartas, fotos o carteles y se justifique razonadamente su inclusión entre las actuaciones subvencionables.

– Documentación gráfica que acredite la eliminación de dichas pintadas, pancartas, fotos o carteles.

– Facturas de los gastos directos para proceder a la eliminación de dichos elementos.

– Facturas emitidas por la empresa contratada para la realización de las tareas de eliminación de los citados elementos.

– Certificado expedido por el Secretario del Ayuntamiento en el que conste el número de habitantes del municipio correspondiente de acuerdo con el Padrón Municipal de habitantes.

***Artículo 6.***– Subsanación de defectos en la solicitud presentada.

Si la Dirección de Coordinación de Policías Locales advirtiera en la solicitud presentada la existencia de algún defecto o inexactitud, lo comunicará al solicitante, concediéndole un plazo de 10 días para que proceda a su subsanación. Transcurrido dicho plazo sin haber procedido a la subsanación, la solicitud se tendrá por desistida de conformidad con el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Artículo 7.***– Procedimiento de concesión de las subvenciones.

1.– Todos los Ayuntamientos interesados que formulen sus solicitudes dentro del plazo establecido y acrediten mediante la documentación prevista cumplir los requisitos exigidos en la presente Orden, ac-

bera, aurrekontuetako baliabideak agortzen ez diren bitartean.

2.– Diru-laguntza horiek emateko ezarritako kreditua agortu eta gero, Herrizaingo sailburuak administrazio-ebazpena emango du, kreditua agortu zen eguna adieraziko duena. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

3.– Eskabideak banan-banan eta hurrenkeraz ebatziko dira, behar bezala beteta geratu ahala eta beharrezko egiaztapenak egin ondoren, eta ordainsari bakarrean ordainduko dira, uko egiten badiote behintzat.

***8. artikulua.***– Diru-laguntzen zenbatekoa.

Deialdi honen arabera, udal bakoitzak jaso beharreko diru-laguntzen zenbatekoa aurkeztutako fakturen zenbatekoak zehaztuko du, taula honetan ezarritako gehieneko mugen barruan eta udalerriko biztanle kopuruaren arabera:

| Biztanleen kopurua | Laguntzaren zenbatekoa gehienez |
|---|---|
| 50.000etik gora | 40.000 euro |
| 20.001 eta 50.000 euro artean | 30.000 euro |
| 5.000 eta 20.000 euro artean | 20.000 euro |
| 5.000tik behera | 10.000 euro |

Hala ere, emandako diru-laguntza guztien zenbatekoa deialdi honetako aurrekontua agortuko ez balu horiek handituko lirateke, udal bakoitzak eskatutako zenbatekoa eta eskabidearen ordena kontuan hartuz.

***9. artikulua.***– Ebazpena.

Espedientea ikusi ondoren, Herrizaingoko sailburuak behar den ebazpena eman eta jakinaraziko du, eskabidea aurkezten denetik hilabeteko epean. Epearen barruan berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada, eskabidea onartu dela ulertuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 43. artikuluan ezarritakoaren arabera; hala ere, aipatu legearen arabera, Administrazioak ebazpen adierazia eman behar du.

***10. artikulua.***– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateraezintasunak.

Diru-laguntza hauek jasotzea ez da bateragarria izango beste edozein erakunde publikok edo priba-

cederán a las subvenciones que les correspondan de acuerdo con el artículo 8, en tanto no se hayan agotado las disponibilidades presupuestarias existentes.

2.– Una vez agotado el crédito consignado para la concesión de estas subvenciones, el Consejero de Interior dictará resolución administrativa señalando la fecha en la que se ha producido el agotamiento del crédito, la cual se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.

3.– Las solicitudes se irán resolviendo individual y ordenadamente conforme vayan quedando debidamente cumplimentadas, una vez realizadas las comprobaciones pertinentes, procediéndose a su abono en un solo pago, salvo renuncia expresa.

***Artículo 8.***– Cuantía de las subvenciones.

La cuantía de la subvención a recibir por cada Ayuntamiento con base en la presente convocatoria se determinará en función del importe de las facturas aportadas, con los límites máximos establecidos en la tabla adjunta atendiendo al número de habitantes del municipio correspondiente:

| Número de habitantes | Cuantía máxima de subvención |
|---|---|
| Más de 50.000 | 40.000 euros |
| Entre 20.001 y 50.000 | 30.000 euros |
| Entre 5.000 y 20.000 | 20.000 euros |
| Menos de 5.000 | 10.000 euros |

No obstante, si la cuantía de la totalidad de las subvenciones concedidas no hubiere agotado el presupuesto destinado a la presente convocatoria, se ampliarán las mismas teniendo en cuenta la cuantía solicitada por cada Ayuntamiento y el orden de solicitud.

***Artículo 9.***– Resolución.

El Consejero de Interior, a la vista del expediente, dictará y notificará la resolución que corresponda en el plazo de un mes desde la presentación de la solicitud. Transcurrido dicho plazo sin haberse notificado resolución expresa, la solicitud se entenderá estimada de acuerdo con lo establecido en el artículo 43 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, sin perjuicio de la obligación que la citada Ley impone a la Administración de resolver expresamente.

***Artículo 10.***– Incompatibilidad con otras subvenciones o ayudas.

La concesión de las presentes ayudas será incompatible con la obtención de cualesquiera otras que,

tuk helburu berarekin eman ditzakeen beste diru-laguntzekin.

***11. artikulua.***– Administrazio onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan arautzen diren diru-laguntzak eskuratzen dituzten administrazioek betebehar hauek izango dituzte kasu guztietan:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Horrela, diru-laguntza eman zaiela jakinarazten dien idazkia jaso eta hamabost eguneko epean erakunde onuradunek ukoa idatziz eta berariaz adierazten ez badute, diru-laguntza onartu egiten dutela ulertuko da.

b) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, euren funtzioak betez, eskatutako informazioa eman beharko diete deialdi honen ondorioz jasotako diru-laguntzei buruz.

c) Laguntza ematen duen entitateari jakinaraztea edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuetatik jaso direla xede bereko diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak.

d) Diru-laguntza emateko kontuan hartutako edozein gorabehera objektibo zein subjektibo aldatuz gero, horren berri erakunde emaileari jakinarazi beharko diote.

***12. artikulua.***– Baldintzak ez betetzea.

Deialdi honetan eta diru-laguntza eman ahal izateko ezarri diren baldintzetako bat ez dela bete egiaztatzen bada, 1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren arabera, Euskal Herriko Diruzaintza Orokorrera itzuli beharko da jasotako zenbateko osoa gehi legez dagozkion interesak.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Agindu honek administrazio-bidea agortzen du eta beraren aurka interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Herrizaingo sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Aginduaren aurka aurkeztu daiteke, baita ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Salan, bi hilabeteko epean, dagoeneko aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquier otra administración o ente público o privado.

***Artículo 11.***– Obligaciones de las Administraciones beneficiarias.

Las Administraciones beneficiarias de las subvenciones reguladas en la presente Orden deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención las entidades beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

c) Comunicar a la entidad concedente la obtención de subvenciones o ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes tanto públicos como privados.

d) Comunicar a la entidad concedente la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

***Artículo 12.***– Incumplimientos.

La constatación de la existencia de cualquier supuesto de incumplimiento de las condiciones que motivaron la concesión de la subvención dará lugar, de conformidad y en los términos establecidos en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre de 1997, y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, a la obligación de reintegrar a la Tesorería general del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán interponer los interesados recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Interior, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

***Bigarrena***.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eragiten Agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 3a.

Herrizaingoko sailburua,
RODOLFO ARES TABOADA.

***Segunda***.– La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 3 de marzo de 2010.

El Consejero de Interior,
RODOLFO ARES TABOADA.